




2021. urteko txostena



GIPUZKOA
TURISMOA



Txostenaren helburuak



COVID-19aren pandemiak gogor jo du ekonomia globala eta eragin handia izan du, bereziki, turismo helmugetan. Gipuzkoako lurralde historikoan ere nabaritu da eragin hori. Hain zuzen ere, bidaiak murrizteak, mugak ixteak eta jaialdiak, hitzaldiak eta antzeko beste ekitaldi batzuk bertan behera utzi behar izateak asko murriztu du bai Espainiatik eta bai atzeritik iritsi ohi diren bidaiarien kopurua.

Koiuntura turistikoari buruzko txosten honen helburua da 2021. urtean Gipuzkoako turismo industriak izan duen bilakaera azaltzea. Horretarako, 2021. urteko egoera aztertzeaz gainera, aurreko bi urteetakoarekin ere alderatu dugu: 2020. urtearekin, urte arteko desberdintasuna ikusteko, eta 2019. urtearekin, pandemiaren aurretiko egoerarekiko desberdintasuna identifikatzeko. Koiuntura turistikoko azterketa hau egiteko datuak iturri ofizialetatik hartu ditugu, besteak beste, Eustat edo INE-Espainiako Estadística Institututik.

Lehenengo, ingurune globala azaldu nahi izan dugu, labur-labur bada ere, Munduko Turismo Erakundeak eskainitako estatistiketan oinarrituta. Gipuzkoako lurralde historikoari dagokionez, hotel establezimenduetako, landa ostatuetako eta apartamentu turistikoetako bidaiariak eta gaualdiak aztertu ditugu. Gainera, Espainiako eta atzerriko merkatu nagusiak ere identifikatu ditugu. Horretaz gainera, turismoaren errentagarritasun ekonomikoa ere aztertu dugu, ostatu eskaintzaren eguneko batez besteko tarifaz (ADR) eta logela erabilgarri bakoitzeko diru sarreretatik abiatuta kalkulatzeko den errentagarritasun ekonomikoaz (RevPar) baliaituta.

2021. urteko datu turistikoak aztertuta, ikusiko dugu kopuruak 2019koak baino txikiagoak direla. Baina, joera gorantz doala ikus daiteke, 2020-2021 urteak alderatuz gero. Aldaketa horrek itxaropena eta motibazioa eragiten ditu tokiko turismo industria guztian.


Aurkibidea



. Sarrera.....	5. or.	4. Jatorrizko merkatu nagusien azterketa: 2019-2021eko bilakaera.....	22. or.
1.1 Ingurune globala.....	6. or.	4.1 Garraio zifrak.....	23. or.
1.2 Tokiko ingurunea.....	7. or.	4.2 Jatorrizko merkatuak.....	26. or.
1.3 Gipuzkoako jardueraren adierazle gakoak.....	8. or.	4.2.1 Espainiako merkatua.....	28. or.
2. Adierazle ekonomikoak eta errentagarritasuna: 2029-2021eko bilakaera..	9. or.	4.2.1.1 Euskadi.....	30. or.
2.1 Enplegua.....	10. or.	4.2.1.2 Madril.....	31. or.
2.2 Errentagarritasun ekonomikoa: ADR eta RevPar.....	12. or.	4.2.1.3 Katalunia.....	32. or.
3. Turismo eskaintzaren eta eskariaren azterketa: 2019-2021eko bilakaera.	13. or.	4.2.2 Atzerriko merkatua.....	33. or.
3.1 Eskaintzaren azterketa.....	14. or.	4.2.2.1 Merkatu nagusien ikuspegia: Frantzia.....	35. or.
3.1.1 Datu orokorrak.....	15. or.	5. Eskualdeen ikuspegia: turismo eskaintzaren azterketa. 2019-2021eko bilakaera36. or.
3.1.2 Eskaintzaren azterketa, ostatu motaren arabera.....	16. or.	5.1 Eskualdeen araberako lurralde banaketa: hotel establezimenduak	37. or.
3.1.3 Eskainitako tokien azterketa.....	17. or.	5.2 Eskualdeen araberako lurralde banaketa: landa ostatuak.....	39. or.
3.2 Eskariaren azterketa.....	18. or.	6. Metodologia oharra eta datu iturriak.....	41. or.
3.2.1 Hotel establezimenduak.....	19. or.		
3.2.2 Landa ostatuak.....	20. or.		
3.2.3 Apartamentu turistikoak.....	21. or.		

1.

Sarrera



1.1 Ingurune globala




Mundu mailan, turismo sektorearen 2021eko jarduerak COVID-19aren pandemiaren eraginpean jarraitzen du. Baina aurreikuspenak positiboak dira. Izan ere, nahiz eta Gipuzkoara iritsi diren atzerriko turisten kopurua pandemiaren aurretik iristen zirenak baino % 72 gutxiago izan, kopuru hori % 4 hazi da 2021ean, aurreko urtearekin alderatuta (TME, 2022).

Turismoaren Mundu Erakundearen arabera (TME, 2022), suspertze erritmoa ez da berdina izaten ari eskualde guztietan, mugikortasunaren murrizketak, txertatze tasak eta bidaiarien konfiantza ere desberdinak baitira batetik bestera. Europak eta Amerikak izan zituzten emaitzarik onenak 2021ean, 2020arekin alderatuta (+ % 19 eta + % 17, hurrenez hurren), baina oraindik ere pandemia aurreko mailen azpitik daude, % 63 azpitik, hain zuzen ere.

2022. urteari begira, TMEko aditu taldeak bi jokaleku planteatzen ditu. Jokalekurik positiboenean, aurreikusten da turismo jardura 2022/2023an suspertuko dela; baina aditu gehienak (% 54) ezkorragoak dira, eta uste dute nazioarteko turisten kopurua ez dela 2019ko mailara itzuliko 2024. urtera arte.

Espainiako turismo sektorearen suspertzeari dagokionez, aurreikuspenak itxaropentsuak dira: aurreikusten da turismo sektorea % 45 haziko dela Espainian, 2022an (Hosteltur, 2022). Pandemiaren aurretik, turismo jardura izan da Espainiako ekonomiari aberastasun gehien ekarri dion jardura, BPGren ekarpenari eta enpleguari begiratuz gero. Horregatik, turismoa suspertzea funtsezkoa da ekonomia suspertzeko.



Iturria: TME (2022).

1.2 Tokiko ingurunea



Merkatu globaletako turismo jardueraren ezaugarriak eskualdean ere errepikatzen dira. 2021ean, jarduerak hobera egin zuen, aurreko urtearekin alderatuta.

Hotel establezimenduen 2021eko balantzean, 2020arekin alderatuta, bidaiarien sarrera (+ % 68) eta gaualdiak (+ % 69,4) handitu direla ikus dezakegu eta hori susperraldiaren erakusle da, baina kopuru horiek, oraindik ere, 2019koak baino txikiagoak dira.

Gipuzkoako landa ostatuei dagokienez, 2021ean hobekuntza esanguratsua izan da: bidaiarien 65.129 sarrera izan dira (2020an baino % 69,6 gehiago) eta 192.826 gaualdi (2020an baino +% 63,3 gehiago). Baina, hala ere, 2021ean ez dira guztiz berreskuratu COVID-19aren aurretik izandako datuak. Hala, 2019ko bidaiarien sarreraren % 78,9 lortu dira 2021ean eta urte hartako gaualdien % 88,8.

Gipuzkoara iristen diren turisten jatorriari begiratuta, Espainiako eta atzerriko merkatuen banaketa 2020koaren antzekoa da, bai bidaiarien sarreraren kopuruan eta bai gaualdienean. 2021ean, turista gehienak (% 67) Espainiako merkatutik iritsi dira gurera. Atzerriko turistak, berriz, % 33 izan ziren, 2019ko kuotetatik oso urrun, orduan turisten ia erdia izatera iritsi baitziren (% 46.). Beraz, Espainiako merkata da protagonista nagusia 2021ean ere. Euskal Autonomia Erkidegoa, Madril eta Katalunia dira, 2020ko hurrenkera berean, lehentasunezko merkatuak, eta aldea nabarmena da beste merkatu batzuekiko. Nazioarteko merkatuei begiratuta, merkatu guztiek egin dute gora 2020ko datuekin alderatuta, bai bidaiarien kopuruan eta bai gaualdienean. Ehunekoei begiratuta, hazkunderik handiena Amerikak du (% 172) eta, horren ondoren, EBko gainerako herrialdeek (% 121). Bi herrialde multzo horien artean, atzerriko bisitarien ia % 30 hartzen dute.

Turismoaren errentagarritasun ekonomikoari dagokionez, hotel eskaintzaren (hotelak, hotel apartamentuak eta ostatuak) eguneko batez besteko tarifa (ADR) eta logela erabilgarri bakoitzeko diru sarreretatik lortzen den errentagarritasun ekonomikoa (RevPar) nabarmen handitu da 2020ko urtearekiko. Hala, ADR 2020an 73,32 euro izatetik 2021ean 94,06 euro izatera igaro da eta RevPar, berriz, 2020an 31,08 izatetik 2021ean 49,41 izatera igaro da. ADR % 28,3 handitu da Gipuzkoan. Eskualdeei begiratuta, Donostian izan du hazkunderik handiena, % 45,01. Gainerako eskualdeetan ere handitu egin da, % 30etik gora.

1.3 Gipuzkoako jardueraren adierazle gakoak: 2019-2021 bilakaera



2021eko datuak, balio metatuen arabera

 **995.159**

Bidaarien sarrerak

 **2.090.306**

Gaualdiak

 **2,04**

Batez besteko egonaldia

 **3.898.993**

Urteko tokiak

 **247**

Hotel establezimenduak

 **% 41**

Tokien betetze maila

2019-2021 aldakuntza

 - % 27,14

 - % 27,38

 - % 1,25

 - % 7,35

 - % 10,93

 - % 31,30

2020-2021 aldakuntza

 % 67,85

 % 72,44

 - % 23,65

 % 36,21

 % 18,99

 % 25,25

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

2.


Adierazle ekonomikoak eta errentagarritasuna: 2019–2021eko bilakaera




2.1 Enplegua 1/2



Enpleguaren bilakaera Euskadin eta Gipuzkoan (2021-2020)



Enpleguaren ehuneko beherakada Euskadin eta Gipuzkoan (2021-2020)



Enpleguaren bilakaera Gipuzkoan, hiruhilekoen arabera				
	1. HIRUHILEKOA	2. HIRUHILEKOA	3. HIRUHILEKOA	4. HIRUHILEKOA
Afiliatuak	33.068	33.204	34.354	35.944
Soldatapekoak	25.929	26.011	27.102	28.707
Autonomoak	7.139	7.193	7.252	7.236

Enpleguak behera egin du Euskal Autonomia Erkidego osoan. 2021ean, erkidego osoan gizarte segurantzaren 95.984 afiliatu zeuden turismo jardueretan. Horietatik % 78,2 soldatapekoak ziren eta gainerakoak, % 21,8, autonomoak. Gipuzkoan ere joera bera ikusten da. 2021ean 33.068 langile zeuden gizarte segurantzaren afiliatuta, horietatik % 78,4 soldatapekoak eta % 21,6, autonomoak.


Aurreko urteekin alderatuta, ikus daiteke bi urteetan baino afiliatu gutxiago daudela Euskadin: 2019an baino % 7,4 gutxiago eta 2020an baino % 2,1 gutxiago. Eta Gipuzkoan, 2019an eta 2020an baino % 9,3 eta % 4,2 afiliatu gutxiago daude, hurrenez hurren. Jaitsiera txikia da autonomoetan soldatapekoetan baino, bai Euskadin eta bai Gipuzkoan, eta bi urteekin alderatuta, 2020arekin eta 2019arekin.

Iturria: geuk egina, euskadi.eus-eko opendatako datuetatik abiatuta (2021)

2.1 Enplegua 2/2



Turismo sektoreko enpleguaren bilakaera Gipuzkoan eta Euskadin (2013-2021)



Iturria: geuk egina, euskadi.eus-eko opendatako datuetatik abiatuta (2021)

Turismo sektoreko enpleguak joera bera erakusten du Euskadin eta Gipuzkoan: 2019ra arte, gorantz egin zuen eta pandemiaren ondorioz, behera egin du.

Modu desagregatuan aztertuz gero, ikus daiteke hiruhileko guztietan ez dela jaisten gizarte segurantzako afiliazioen kopurua, aurreko urteko aldi berarekiko. Hala, 2021eko azken bi hiruhilekoetan, enpleguak gora egin du Gipuzkoan: igoera hori txikia da hirugarren hiruhilekoan eta handiagoa laugarrenean, % 5,5 ingurukoa. Guztira, 2020ko urri, azaro eta abenduarekin alderatuta, 1.883 afiliatu gehiago esan nahi du horrek.

Enpleguaren bilakaera Gipuzkoan, hiruhilekoen arabera, 2021ean


Enpleguaren bilakaera Gipuzkoan, hiruhilekoen arabera								
	1. HIRUHILEKOA		2. HIRUHILEKOA		3. HIRUHILEKOA		4. HIRUHILEKOA	
	2021	% Δ 2020	2021	% Δ 2020	2021	% Δ 2020	2021	% Δ 2020
Afiliatuak	33.068	-% 4,2	33.204	-% 2,2	34.354	% 0,8	35.944	% 5,5
Soldatapekoak	25.929	-% 5,1	26.011	-% 2,9	27.102	% 1,0	28.707	% 6,8
Autonomoak	7.139	-% 0,8	7.193	% 0,3	7.252	% 0,4	7.236	% 0,7

Fuente: Elaboración propia a partir de datos de EUSTAT (2019)

2.2 Errentagarritasun ekonomikoa: ADR eta RevPar



Errentagarritasun ekonomikoa Gipuzkoan 2019-2021



Gipuzkoan, hotel eskaintzaren (hotelak, hotel apartamentuak eta ostatuak) eguneko batez besteko tarifa (ADR) eta logela erabilgarri bakoitzeko diru sarreretatik lortzen den errentagarritasun ekonomikoa (RevPar) nabarmen handitu dira 2020 urtearekiko. Hala, ADR 2020an 73,32 euro izatetik 2021ean 94,06 izatera igaro da eta RevPar, berriz, 2020an 31,08 izatetik 2021ean 49,41 izatera igaro da.

ADR % 28,3 handitu da Gipuzkoan. Eskualdeei begiratuta, Donostian izan du hazkunderik handiena, % 45,01. Gainerako eskualdeetan ere handitu egin da, % 30etik gora.

Logela erabilgarri bakoitzeko diru sarreretatik datorren errentagarritasun ekonomikoak ere ADRaren antzera jokatu du, baina ehunekoak handiagoak dira. Zehazki, Gipuzkoan ia % 60 handitu da RevPar. Eskualde guztien artean, hazkunderik handiena Donostiak izan du, % 85. Donostialdean, Gipuzkoako kostaldean eta Gipuzkoako barnealdean ere gora egin du RevPar adierazleak, hazkundea % 50etik gorakoa izan da eskualde guztietan.

Gipuzkoa: 2021eko datuak eta 2020-2021 aldakuntza

94,06 €
ADR



49,41 €
RevPAR



Aldakuntza nabarmenenak

% 45,01
Donostia

% 85,17
Donostia

% 31,77
Donostialdea

% 51,90
Donostialdea

% 35,18
Gipuzkoako kostaldea

% 56,19
Gipuzkoako kostaldea

% 32,86
Gipuzkoako barnealdea

% 50,06
Gipuzkoako barnealdea

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

3.

Turismo eskaintzaren eta eskariaren azterketa: 2019– 2021eko bilakaera



3.1 Eskaintzaren azterketa



3.1.1 Datu orokorrak



2019/2020/2021ean irekita egon diren hotel establezimenduak**, landa ostatuak eta apartamentu turistikoak

Hotel establezimenduak	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
2019	245	247	272	288	284	289	290	290	292	285	272	267
2020	245	259	264	21	88	185	263	274	273	257	182	175
2021	170	170	204	210	227	275	289	290	291	284	279	269
2019-2021eko aldakuntza	-% 30,61	-% 31,17	-% 25,00	-% 27,08	-% 20,07	-% 4,84	-% 0,34	% 0,00	-% 0,34	-% 0,35	% 2,57	% 0,75

Landa ostatuak	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
2019	138	140	151	165	165	166	173	174	175	170	167	164
2020	141	144	146	17	83	130	160	161	163	162	149	144
2021	148	146	161	167	164	167	174	176	177	172	171	168
2019-2021eko aldakuntza	% 7,25	% 4,29	% 6,62	% 1,21	-% 0,61	% 0,60	% 0,58	% 1,15	% 1,14	% 1,18	% 2,40	% 2,44

Apartamentu turistikoak	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
2019	216	224	226	236	248	245	245	236	245	253	248	242
2020	229	235	247	94	144	193	249	242	244	267	536	530
2021	539	551	572	599	613	602	607	616	618	615	612	585
2019-2021eko aldakuntza	% 149,54	% 145,98	% 153,10	% 153,81	% 147,18	% 145,71	% 147,76	% 161,02	% 152,24	% 143,08	% 146,77	% 141,74

Pandemiaren bilakaerak eta une bakoitzean osasun egoeraren ondorio izan diren dekretuek baldintzatu dute azken bi urteetan Gipuzkoako lurraldeko ostatuaren eskaintzaren bilakaera. Oro har, 2021eko abuztura arte itxaron behar izan da 2019ko kopuruen antzekoetara iristeko. Hala ere, ostatu moten arteko aldeak nabarmenak dira.

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).


*** Autonomia Erkidegoko Establezimendu Turistiko Hartzaileren Inkestatik atera ditugu datuak. Inkesta horren helburua da EAEko hotel establezimenduetako bidaiarien sarreraren eta gualdien bilakaera neurtzea, Hotel establezimenduen artean bi talde bereizten dira: 1. taldea, 3, 4 eta 5 izarreko establezimenduak hartzen dituena; eta 2. taldea, 2 eta 1 izarreko hotelak eta ostatuak hartzen dituena. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu EUSTAT.

3.1.2 Eskaintzaren azterketa, ostatu motaren arabera

2019/2020/2021ean irekita egon diren hotel establezimenduak**, landa ostatuak eta apartamentu turistikoak




Gipuzkoako hotelen eskaintzaren bilakaera 2020-21 eta 2019 artean




Eskaintzaren atzerakadan eta ondorengo susperraldian bi une garrantzitsu identifikatu ditugu. Pandemiaren hasierako hilabeteetan, 2020ko apirilean, eskaintza ia % 93 jaitsi zen. 2020ko udan, nolabaiteko susperraldia bizi izan zen, baina 2020ko azaroan berriro egin zen atzera. 2021eko urtarrilean eta otsailean, hotel eskaintza % 30 baino gehiago erori zen. 2021eko abuztura arte itxaron behar izan da 2019ko kopuruen antzekoetara iristeko. Azpimarratzekoa da 2021eko azken hilabeteetan 2019ko kopuruak gainditu direla.

Gipuzkoako landa ostatuen eskaintzaren bilakaera 2020-21 eta 2019 artean



Landa ostatuen eskaintzaren bilakaera aztertuta, pandemiaren hasierako hilabeteetan izugarritzko jaitsiera izan zuen (urte arteko aldakuntza handienak apirilean eta maiatzean izan ziren, - % 90 eta -% 50, hurrenez hurren). Baina, ondoren, jarduera azkar berreskuratu zen. Udako hilabeteetan eta udazkenean, eskaintzaren urte arteko aldakuntza negatiboa txikiagoa izan zen (-% 7,5). Eta hurrengo urtera arte, 2021era arte, itxaron behar izan zen goranzko bideari ekiteko eta 2019ko kopuruetara hurbiltzeko. Hala, 2021eko urtarrilean, eskaintza % 7,25 handitu zen; otsailean, % 4,29; eta martxoan, % 6,62.

Gipuzkoako apartamentu turistikoen eskaintzaren bilakaera 2020-21 eta 2019 artean



Pandemiaren ondoren apartamentu turistikoen eskaintzak izan duen bilakaera aztertuta, ikus dezakegu ostatu mota honen aldeko joera nabarmena dela merkatuan. Apartamentu turistikoek eusten diote ongien pandemiaren eraginari, lehen hilabeteetan. Hala, eskaintzak % 60,17 egin zuen behera apirilean; % 41,94, maiatzean; eta % 21,22, ekainean. Sektoreak 2020an izan zuen suspertze lasaiaren ondoren, 2021ean eskaintza bikoiztu egin da, urteko hilabete guztietan. Azpimarratzekoa da, halaber, apartamentu turistikoen eskaintzaren 2022 eta 2021 urteen arteko aldakuntza % 173,56koa dela.

p** Autonomia Erkidegoko Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkestak ateratu ditugu datuak. Inkesta horren helburua da EAEko hotel establezimenduetako bidaiariaren sarreraren eta gausaldeen bilakaera neurtzea. Hotel establezimenduen artean bi talde bereizten dira: 1. taldea, 3, 4 eta 5 izarreko establezimenduak hartzen dituena; eta 2. taldea, 2 eta 1 izarreko hotelak eta ostatuak hartzen dituena. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu EUSTAT).

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

3.1.3 Eskainitako tokien azterketa



2019/2020/2021ean hotel establezimenduetan**, landa ostatueta eta apartamentu turistikoetan eskainitako tokiak

Hotel establezimenduak	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
2019	310.903	293.077	355.666	360.395	370.815	361.548	382.219	383.769	366.453	373.157	337.150	313.253
2020	297.267	290.977	180.460	13.925	61.940	154.321	347.866	366.337	344.458	335.673	241.402	227.821
2021	230069	212798	254457	273.867	295.327	350.092	389.948	399.553	379.354	387.261	368.011	358.256
2019-2021eko aldakuntza	-% 26,00	-% 27,39	-% 28,46	-% 24,01	-% 20,36	-% 3,17	% 2,02	% 4,11	% 3,52	% 3,78	% 9,15	% 14,37

Landa ostatuak	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
2019	49.398	45.692	55.015	58.554	61.405	59.897	64.917	66.651	63.198	62.999	59.682	57.340
2020	49.810	49.178	28.175	3.174	21.151	40.807	60.101	61.560	57.709	59.074	53.022	51.365
2021	54443	50052	59243	60.524	60.687	59.796	65.592	68.613	63.016	64.195	60.827	61.037
2019-2021eko aldakuntza	% 10,21	% 9,54	% 7,69	% 3,36	-% 1,17	-% 0,17	% 1,04	% 2,94	-% 0,29	% 1,90	% 1,92	% 6,45

Apartamentu turistikoak	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
2019	24.252	22.672	25.418	25.318	27.714	27.268	28.024	26.148	27.088	29.026	27.536	26.923
2020	23.728	24.034	15.755	6.971	13.002	15.924	27.028	26.332	25.756	31.058	33.300	32.951
2021	33.232	32.648	37.049	41.520	42.986	40.966	43.586	43.197	41.950	43.442	41.596	38.938
2019-2021eko aldakuntza	% 37,03	% 44,00	% 45,76	% 63,99	% 55,11	% 50,23	% 55,53	% 65,20	% 54,87	% 49,67	% 51,06	% 44,63

2020ko pandemiak eta mugikortasunari jarri zitzaizkion murrizketek ostatu mota guztietan izan zuten eragina eta hori islatzen da, baita ere, 2022an Gipuzkoan eskaini diren tokien bilakaeran eta jardueraren suspertze erritmoan. Hotelen sektoreak eskainitako tokietan, 2021eko lehen erdiko batez besteko eskaintza 2019koa baino -% 22 txikiagoa izan zen. Urtearen bigarren erdian, egoerak hobera egin zuen eta 2019koa baino % 6,16 handiagoa izan zen eskaintza. Landa ostatueta dagokienez, 2021eko lehen erdiko batez besteko eskaintza 2019koa baino % 4,9 handiagoa izan zen. Baina urtearen bigarren erdian aldakuntza hori txikiagoa da, % 2,33 besterik ez. Apartamentu turistikoetan, 2021eko lehen erdiko batez besteko eskaintza 2019koa baino % 49,4 handiagoa izan zen eta urtearen bigarren erdian, berriz, % 53,49 handiagoa.


Iturria: geuk egin, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

** Autonomia Erkidegoko Establezimendu Turistiko Hartzaileren Inkestatik atera ditugu datuak. Inkesta horren helburua da EAEko hotel establezimenduetako bidaiarien sarreraren eta gualdien bilakaera neurtzea, Hotel establezimenduen artean bi talde bereizten dira: 1. taldea, 3, 4 eta 5 izarreko establezimenduak hartzen dituena; eta 2. taldea, 2 eta 1 izarreko hotelak eta ostatuak hartzen dituena. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu EUSTAT.


3.2 Eskariaren azterketa




3.2.1 Hotel establezimenduak**




Bidaiarien sarrerak



Batez besteko egonaldia



Gaualdiak



2021 urteari begira, Gipuzkoako hotel establezimenduetan % 68 handitu dira bidaiarien sarrerak eta % 69,4 gaualdiak, 2020ko datuekin alderatuta. Horrek sektorea suspertzen hasi dela erakusten digu, nahiz eta kopuruak 2019koak baino txikiagoa izan.


2021ean, Gipuzkoako hotel establezimenduetara 905.135 bidaiari iritsi dira eta, guztira, 1.736.670 gaualdi egin dituzte. Kopuru horiek 2019ko bidaiarien sarrerak eta gaualdiak baino txikiagoak dira, -% 28 eta -% 32 txikiagoak, hurrenez hurren.

Gipuzkoako hotel establezimenduetako batez besteko egonaldia 1,84 egunekoa izan da 2021ean, 2019ko batez besteko egonaldia baino 7 puntu portzental txikiagoa, orduan 2 egunekoa izan baitzen. 2020an, bestalde, egonaldia luzeagoa izan zen, 2,4 egunekoa, beraz, 2021arekiko -23 puntu portzentualeko aldea dago.

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

** Autonomia Erkidegoko Establezimendu Turistiko Hartzailen Inkestatik atera ditugu datuak. Inkesta horren helburua da EAEko hotel establezimenduetako bidaiarien sarreraren eta gaualdien bilakaera neurtzea, Hotel establezimenduen artean bi talde bereizten dira: 1. taldea, 3, 4 eta 5 izarreko establezimenduak hartzen dituena; eta 2. taldea, 2 eta 1 izarreko hotelak eta ostatuak hartzen dituena. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu EUSTAT.

3.2.2 Landa ostatuak






Gipuzkoako landa ostatuetan, 2021eko urteko balantzeari begiratuta, ikusi da egoerak hobera egin duela: bidaiarien 65.129 sarrera eta 192.826 gaualdi izan dira, 2020an baino % 69,9 eta % 63,3 gehiago, hurrenez hurren.

Baina, hala ere, 2021ean ez dira guztiz berreskuratu COVID-19aren aurretik izandako datuak. Hala, 2019ko bidaiarien sarreraren % 78,9 lortu dira 2021ean eta urte hartako gaualdien % 88,8.

Batez besteko egonaldiari dagokionez, 2021eko urteko balantzeari begiratuta, pandemiaren aurreko urteetan ikusi zen joera berreskuratu dela esan dezakegu. 2022ko batez besteko egonaldia 3,09 egunekoa da. Datu hori 2020koa baino txikiagoa bada ere (-0,14), 2019koa baino ia 20 puntu handiagoa da (0,198).

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

3.2.3 Apartamentu turistikoak



2021. urtean, Gipuzkoako apartamentu turistikoetako bidaiarien sarreraren eta gaualdien kopuruak 2020koak baino nabarmen handiagoak izan dira hilabete guztietan.

Zehazki, 2021ean bidaiarien 24.895 sarrera izan ziren, 2020arekiko % 56,4ko urte arteko hazkundera. Era berean, 160.810 gaualdi kontabilizatu ziren, 2020arekiko % 132,5eko urte arteko aldakuntza.

2021ean ez dira guztiz berreskuratu COVID-19aren aurretik izandako datuak. Hala, 2019ko bidaiarien sarreraren % 76,3 lortu dira. Baina gaualdietan kopuruak handiagoak dira, % 42,1 handitu dira.

2021ean, batez besteko egonaldian inoizko baliorik handiena lortu zen, 8,13 egunekoa. Horrek erakusten digu Gipuzkoako apartamentu turistikoetan erregistratutako okupazioak hobera egin duela. Kopuru horiek 2020ko balioekiko 25 puntu portzentualeko hazkundera adierazten dute, urte hartako batez besteko egonaldia 6,47 egunekoa izan baitzen. Eta 2021eko egonaldia 2019ko batez besteko egonaldiaren bikoitza da, 1,26 puntuko aldea dago 2021eko hilabete guztietan, 2020arekiko.

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

4.

Jatorrizko merkatu nagusien azterketa: 2019–2021eko bilakaera




4.1 Garraio zifrak




Atzerritik iritsitako turistak, Espainiara sartzeko bidearen arabera

2021eko guztizko metatua eta 2020-2021eko aldakuntza



Atzerritik iritsitako turistak azken 12 hilabeteetan (2021eko abendura arte)



Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Gipuzkoaren egoera turistikoa ulertzeko, nazioarteko turistek Espainiara sartzeko erabiltzen dituzten bideak aztertu behar ditugu. Oro har, 2021eko udako datuei begiratuta, guztira 31.129.393 turista atzerritar iritsi dira Espainiara, lau bidetatik. Kopuru horrek urte arteko aldakuntzan % 64,42ko igoera adierazten du, 2020ko aldi berarekiko. Hazkundera nabarmena bada ere, oraindik oso urrun dago 2019ko datuetatik. Izan ere, urte hartan, nazioarteko 83.509.151 turista iritsi ziren gurera (-% 62,72). Ohikoa denez, nazioarteko turistek Espainian sartzeko erabiltzen duten bide nagusia aireportua da, ia 25 milioi turista iritsi ziren hegazkinez. Datu hori, berriro ere, aurreko urtekoa baino askoz ere handiagoa da (% 78,86), baina 2019kotik urrun dago, urte hartan 68.691.897 atzerritar iritsi baitziren. Errepide bidezko garraioak izan du hazkunderik txikiena. Deigarria da itsasoko garraioaren bilakaera, aurreko urtearekin alderatuta behera egin duen bakarra baita (-% 21,00), Beharbada Brexitaren eta Erresuma Batuko egoiliarrek izan ditzaketen mugapenen eragina izan daiteke, pandemiaren gainera.

Gipuzkoako aire garraioa

2021. urtean, guztira 2.386.461 bidaiari iritsi dira gure lurraldera, Euskal Autonomia Erkidegoko bi aireportu nagusietako (Bilbo eta Donostia) eta nazioarteko turistak Gipuzkoako lurralde historikora iristeko erabiltzen dituzten Espainiako aireportu nagusietako aire trafikoari begiratuta. Bilboko aireportuak 225.5842 bidaiari izan ditu eta Donostiakoak, 130.619 bidaiari. Aldakuntza portzentual handiak dira horiek, 2020. urtearekin alderatuta.


2021 eta 2019 urteen arteko aldakuntza hiruhilekoen arabera aztertuz gero, ikusiko dugu aldakuntza positiboa askoz ere nabarmenagoa dela bigarren hiruhilekoan, gainerako hiruhilekoetan baino gehiago, pandemiaren garairik gogorrean (2020ko martxotik ekainera) hegaldiak murriztu baitziren.

Aireportuetako bidaiarien trafikoaren guztizko metatua. 2020ko eta 2021eko urtarrila-abendua




Iturria: geuk egina, Aenako datuetatik abiatuta (2021) - OHARRA: iraileko daturik ez dago Donostiarako.

Aireportuetako bidaiarien trafikoa, 2019arekin alderatuta, hiruhilekoen arabera



Aireportuetako bidaiarien trafikoa 2021ean




4.2 Jatorrizko merkatuak




Espainiako eta atzerriko merkatua: alderaketa


Espainiako eta atzerriko bidaiarien sarrerak 2019-20-21, urtarriletik abendura




Espainiako bidaiarien batez besteko egonaldia 2019-20-21



Atzerriko bidaiarien batez besteko egonaldia 2019-20-21



Bidaiarien sarrerak eta gualdiak 2019-20-21




EUSTATEko establezimendu turistikoaren inkestako datuen arabera, eta nahiz eta aurreko urtearekiko egoera aldatu, Espainiako eta atzerriko merkatuetako bidaiarien sarreraren eta gualdien banaketa 2020koaren oso antzekoa dela ikus dezakegu. 2021ean, turista gehienak Espainiako merkatutik iritsi dira gurera (% 67). Atzerriko turistak, berriz, % 33 izan ziren, 2019ko kuotetatik oso urrun, orduan turisten ia erdia izatera iritsi baitziren (% 46). Bi merkatuek % 68 handitu dute bere merkatu kuota, 2020ko datuekin alderatuta. Hala ere, 2019arekiko Espainiako merkatua % 10 jaitsi da. Atzerriko merkatuaren jaitsiera, berriz, ia % 50ekoa izan da. Gualdien datuak 2020ko datuekin alderatzen baditugu, hazkunde txiki bat ikusten dugu, % 70era iritsi da atzerriko merkatuan eta % 74ra, Espainiakoan.

Batez besteko egonaldia 2019ko mailetara itzuli da (2,10 gau zen urte horretan), 2,13koa izan baita. 2020an, ordea, Espainiako merkatuan 2,61 gauetako batez bestekoa lortu zen. Atzerriko merkatuari dagokionez, oraindik ere mugikortasuna mugatua denez, jaitsiera nabarmena da eta batez besteko egonaldia ez da bi gauetara iritsi (1,96). Aurreko urteko batez besteko egonaldiaren erdia da hori (3,93).

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).


4.2.1 Espainiako merkatua



Espainiako merkatua: datu orokorrak




Espainiako bidaiarien sarrerak 2019 - 2021



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Espainiako bidaiarien gaudiak 2019 - 2021



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Fuente: Elaboración propia a partir de datos de EUSTAT (2021)


Dagoeneko adierazi dugun bezala, eta murrizketak arindu direla kontuan hartuta, Espainiako merkatua da 2021 urteko protagonista nagusia. Euskal Autonomia Erkidegoa, Madril eta Katalunia dira, 2020ko hurrenkera berean, lehentasunezko merkatuak, eta aldea nabarmena da beste merkatu batzuekiko. Hiru erkidego horietako bisitariak Gipuzkoan 2021ean izandako bidaiarien sarrera guztien % 60 dira. Gainera, hirurak erkidegoetako bidaiarien sarrera kopurua handitu da: % 73, Euskal Autonomia Erkidegoan; % 69, Madrilen; eta % 76, Katalunian. Kopuru horiekin, 2019ko mailara hurbildu dira. Azpimarratzekoa da, hurbiltasuneko turismoa indartu denez, Euskal Autonomia Erkidegoko bidaiarien sarrerak handitu direla, 2019. urtearekiko. Zehazki, % 23ko hazkundera izan dute.

Aipatutako hirurak erkidegoez gainera, ia merkatu guztietako bidaiarien sarrerak handitu dira, aurreko urtearekin alderatuta. Urtean bidaiarien 35.000 sarrera inguru dituzten erkidegoetan, azpimarratzekoa da Andaluziako bidaiarien sarreraren hazkundera (+% 121), ia 2019ko kopuruetara iritsi baita. Haren ondotik aipatzekoak dira Valentziako Erkidegokoa (+% 95) eta Gaztela eta Leongoa (+% 61).

Espainiako merkatuari begiratuta, nabarmena da urtarokotasuna. Dagoeneko aipatu dugun bezala, Espainiako merkatuak hazkundera orokorra izan duenez, hirugarren hiruhilekoko datuek nabarmen egin dute gora, 2020ko datuak baino ia % 50 handiagoak dira eta 2019koak baino % 35 handiagoak. Ikus daiteke, halaber, azken hiruhilekoko datuak (urri, azaro eta abenduak) 2019koak baino hobeak direla, alegia, pandemia aurreko egoera hobetu da.

Fuente: Elaboración propia a partir de datos de EUSTAT (2021)


Espainiako bidaiarien sarrerak guztira Gipuzkoan: 2019-2022-2021 alderaketa



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).


4.2.1.1 Euskadi

Gipuzkoako bidaiarien sarrerak




Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Gaualdiak




Iturria: geuk egina, Eustateko turismo osatuen guztizko sarreraren datuetatik abiatuta (2021).

Turista kopurua ostatu motaren arabera



Iturria: geuk egina, Eustateko turismo osatuen guztizko sarreraren datuetatik abiatuta (2021).

Batez besteko egonaldia



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).


Gipuzkoako merkatur hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoa da bidaiarien sarrera eta gaualdi gehien dituen lurraldea. Eta kopuru horietan eragin nabarmena izan dute Espainiako eta Erkidego bertako mugikortasun murrizketek. Euskadiko bidaiarien sarrerak % 73 handitu dira 2020arekin alderatuta, nahiz eta urte horretan ere pisu handia izan. Baina, gainera, aurtengo egoera berezia izanik, % 23 handitu da pandemiaren aurreko datuekin alderatuta.

Gipuzkoako lau sarreretatik bat erkidegoko bertako bidaiaria bada ere, sarreraren eta gaualdien banaketa urtean zehar aztertuta, ikusiko dugu martxoan eta apirilean jotzen dutela goia: bi hilabete horietan kontzentratzen da urteko bidaiarien sarreraren % 30. Horien atzetik datoz ekaina eta urria, azken kasu horretan, bereziki, Pilareko zubiaren eraginez. Antzekoa gertatzen da batez besteko egonaldiarekin ere: batez beste, ia bi gauetara iristen da (1,82), 2019ko datuen gaineratik. Azpimarratzekoa da batez besteko egonaldiaren baliorik handienak apirilekoak direla (1,92) eta ondoren etorriko dira iraila (1,96), abendua (1,98) eta abuztua (2,19).

Hautatutako ostatu motari dagokionez, aurreko urteetako banaketa berbera ikus dezakegu: Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren ostatu mota gustukoena hotela da (% 85) eta haren atzetik datoz landa ostatuak (% 11) eta, askoz ere pisu txikiagoz, apartamentuak (% 3). Azken horiek, beste tipologiek baino kopuru txikiagoak badituzte ere, ia % 100eko hazkundea izan dute erabileran, aurreko urteekin alderatuta.


4.2.1.2 Madril

Gipuzkoako bidaiarien sarrerak




Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Gaualdiak




Iturria: geuk egina, Eustateko turismo osatuen guztizko sarreraren datuetatik abiatuta (2021).

Turista kopurua ostatu motaren arabera



Iturria: geuk egina, Eustateko turismo osatuen guztizko sarreraren datuetatik abiatuta (2021).

Batez besteko egonaldia




Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Madrilgo merkatua izan da 2021ean Gipuzkoara iritsi diren bisitarien bigarren jatorri nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoaren ondoren. Bidaiarien sarrerak nabarmen handitu dira 2020arekin alderatuta (% 88) eta ia 2019ko kopuruetara iritsi dira (-% 12). Baina urtean zeharreko banaketan eragin handia izan dute Espainiaren barruan mugitzeko murrizketek. Eta, horrela, aurreko urteetan ez bezala, bigarren seihilekoan kontzentratzen da urtean zehar jasotako bisita guztien % 80. Uztailan eta abuztuan etorri dira bisitari gehien Madrildik.

Batez besteko egonaldia, 2,19 gauekoa, 2020koa baino handiagoa da eta 2019ko balioetara hurbiltzen da. Urte hartan, 2,23 gauekoa izan zen batez besteko egonaldia. Gainera, kontuan hartuta, berriro ere, hilabete batzuetan mugikortasunean murrizketak izan ditugula, uztailan eta abuztuan batez besteko gaualdia 3 gauekora hurbiltzen da, zehazki, 2,61 eta 2,8 gauekoa izan da, hurrenez hurren. Madril dar gehienek hotela aukeratzen jarraitzen dute (% 90), ondoren datoz landa ostatuak (% 8) eta apartamentu turistikoak, oso hondarreko balioak dituztenak.


4.2.1.3 Katalunia

Gipuzkoako bidaiarien sarrerak




Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Gaualdiak




Iturria: geuk egina, Eustateko turismo osatuen guztizko sarreraren datuetatik abiatuta (2021).

Turista kopurua ostatu motaren arabera



Iturria: geuk egina, Eustateko turismo osatuen guztizko sarreraren datuetatik abiatuta (2021).

Batez besteko egonaldia



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).


Kataluniak 2020an baino bidaiarien sarrera gehiago izan ditu, % 92 gehiago, hain zuzen ere. Horrela, pandemiaren aurreko kopuruetara hurbildu da. Baina, Espainiako beste merkatu batzuetan gertatzen den bezala, bisitak bigarren seihilekoan kontzentratu dira, hilabete horietan jaso baitira urte osoko bidaiarien sarreraren % 82. Hain zuzen ere, aurreko urteetan ez bezala, abuztuan kontzentratzen da bidaiarien sarreraren laurdena baino gehiago (% 26) eta ia gaualdi guztien % 30. 2019ko datuek Kataluniako herritarren sarrerak urte osoan zehar banatuagoak zeudela erakusten zuten eta abuztuan bidaiarien sarreraren % 15 besterik ez zen.

Batez besteko egonaldia 2,12 gauekoa izan da, 2020an baino % 20 handiagoa. Datu hori 2019ko batez besteko 2,21 gauekara hurbiltzen da. Nagusiki, Gipuzkoara bisitan datozen kataluniarrek hotelak aukeratzen dituzte ostatu hartzeko (% 86,1), baina landa ostatuak (% 10,5) zein apartamentu turistikoak (% 3,4) madrildarrek baino gehiago erabiltzen dituzte.


4.2.2 Atzerriko merkatua



Atzerriko merkatura: datu orokorrak



Gipuzkoako nazioarteko bidaiarien sarrerak guztira: 20-21eko alderaketa, ekainetik irailera



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2020 eta 2021)


2021eko datuek udako datuak aztertuta atera genuen ondorioa berresten dute: nazioarteko merkatura berreskuratzen ari da, mantso bada ere. Merkatu guztiek egin dute gora 2020ko datuekin alderatuta, bai bidaiarien sarreretan eta bai gaualdietan. Ehunekoei begiratuta, hazkunderik handiena Amerikak du (% 172) eta, horren ondoren, EBko gainerako herrialdeek (% 121). Bi herrialde multzo horien artean, atzerriko bisitarien ia % 30 hartzen dute. Bi herrialde multzo horiek, Frantziarekin batera (horixe da merkatu nagusia, merkatu osoaren % 39 hartzen du) atzerriko bisitari guztien bi heren hartzen dituzte (% 67). Hala ere, oraindik urrun daude 2019ko kopuruetatik: Amerika -% 66, Europako gainerako herrialdeak -% 35 eta Frantzia -% 20. Azken herrialde horrek izan du bilakaerarik onena.

Lehentasunezko beste merkatu batzuei begiratuta, Alemania edo Italia kasu, ikusten da bidaiarien sarrerak nabarmen handitu direla, % 116 eta % 92, hurrenez hurren, baina oraindik kopuru horiek ez dira 2019koen erdira ere iristen. Erresuma Batuaren hazkundera txikiagoa izan da (% 39) eta kopuru absolutuak ez dira 2019an Gipuzkoan jasotzen ziren bidaiarien sarreraren herenera ere iristen.

Urtarokotasuna areagotu egin da, eta urteko bigarren seihilekoan kontzentratu da bidaiarien sarrera eta gaualdi gehien, zehazki, urteko sarreraren % 81. Ehuneko hori askoz ere txikiagoa zen 2019an, % 56. Uztail, abuztu eta iraileko hilabeteetan kontzentratzen da bidaiarien sarreraren ia % 50, baina oraindik ere 2019ko kopuruetatik urrun daude (-% 32). Azken hiruhilekoan, laukoiztu egin dira iazko guztizko kopuruak eta, horrela, 2019ko kopuru osora hurbildu gara (-% 9). Lehen eta bigarren seihilekoko datuak oraindik ere pandemiaren aurreko kopuruetatik oso urrun daude.


Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2020 eta 2021)

Nazioarteko bidaiarien sarrerak hiruhilekoen arabera: 2019-2020-2021 alderaketa



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2020 eta 2021)


Nazioarteko gaualdiak hiruhilekoen arabera: 2019-2020-2021 alderaketa



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2020 eta 2021)


4.2.2.1 Merkatu nagusiaren ikuspegia: Frantzia

Gipuzkoako bidaiarien sarrerak




Iturria: geuk egina, Eustateko datuetatik abiatuta (2021).

Gaualdiak




Iturria: geuk egina, Eustateko turismo osatutuen guztizko sarreraren datuetatik abiatuta (2021).

Turista kopurua ostatu motaren arabera



Iturria: geuk egina, Eustateko turismo osatutuen guztizko sarreraren datuetatik abiatuta (2021).

Batez besteko egonaldia




Iturria: geuk egina, Eustateko datuetatik abiatuta (2021).

2021ean Gipuzkoa bisitatu duten atzerritarren herena baino gehiago (% 39) Frantziatik etorri da. Hori 2020an baino 9 puntu gutxiago da, baina oraindik ere pandemiaren aurreko kuoten gainera dago, orduan atzerritar guztien % 25 baitziren frantziarrak. Bidaiarien sarrerak eta gaualdiak % 35 handitu dira aurreko urtearekin alderatuta. Hala ere, bidaiarien sarrerak oraindik ere pandemiaren aurretikoak baino % 20 txikiagoak dira. Bidaiarien sarreraren eta gaualdien banaketa aztertuta, ikus dezakegu bigarren seihilekoan kontzentratzen direla (% 79). Abuztuan eta urrian izan dira bidaiarien sarrera kopururik handienak (21.777 eta 19.643, hurrenez hurren).

Hurbiltasuneko merkatutzat hartzen denez, batez besteko egonaldia atzerriko merkatuko batez bestekoaren azpitik dago (1,98) eta Espainiako merkatuko datuen antz handiagoa du, nolabait. Hala, 2021ean batez besteko egonaldia 1,58 gauetakoa izan da, 2020an baino ia hiru puntu gehiago (1,27 gau). Gipuzkoara bisitan etortzen diren frantsesek hautatzen duten ostatu motari begiratuta, ia guztiek (% 98) hotelak aukeratzen dituzte. 2021eko datuek berresten dute landa ostatuaren aukera landu beharko genukeela Frantziako merkatuarekin, arestian aipatu dugun bezala, beste parametro batzuetan Espainiako merkatuaren antzeko portaera duela ikusi delako.

5.

**Eskualdeen ikuspegia:
turismo eskariaren azterketa.
2019-2021eko bilakaera**




5.1 Eskualdeen araberako lurralde banaketa: hotel establezimenduak (1/2)



Eskualdeak aztertuta, 2021 urte osoa hartuta, ez dira guztiz berreskuratu 2019an izandako datuak.


Donostian, bidaiarien 553.626 sarrera izan ziren eta 1.074.157 gaualdi. Hazkunde handieneko eskualdea izan da, 2019arekin alderatuta, bidaiarien sarrerak % 74,2 handitu direlako eta gaualdiak, berriz, % 70,5. Gipuzkoako kostaldean, suspertzea antzekoa da, 199.392 bidaiari izan dira eta 345.320 gaualdi. Hala, % 71,1eko eta % 70,9ko susperraldia izan dugu, hurrenez hurren. Gipuzkoako barnealdean, bidaiarien sarrerak 66.118 izan dira eta gaualdiak, 143.569. 2020arekin alderatuta datuak hobek badira ere, 2019arekin alderatuta bidaiarien sarrerak % 56,4 hobetu dira eta gaualdiak, % 47,6. Donostia hiriburuan kontzentratzen da merkatu kuotaren zatirik handiena, % 61,2.

2021eko gaualdiak eskualdeen arabera



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Hotel establezimenduetako bidaiarien sarrerak eskualdeen arabera




Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

5.1 Eskualdeen araberako lurralde banaketa: hotel establezimenduak (2/2)




2021eko bidaiarien sarrerak eskualdeen arabera




Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

2019-2020-2021 urteetako sarreraren alderaketa



Eskualde batezko batez besteko egonaldia 2019-20-21



Pandemiak hiriburuaren kokapena sendotu du eta ez du lurraldearen oreka handitu. 2019az geroztik, Donostiaren merkatu kuota handitzen joan da, % 61,2 izatera iritsi arte. Gipuzkoako kostaldean behera egin dute datuek eta barnealdeko merkatu kuota ere % 7,3ra jaitsi da.

Lurralde osoko ildoari jarraiki, eskualdeetako batez besteko egonaldia aurreko urteetako baino laburragoa izan da. Donostian, batez besteko egonaldia 1,84 gauetakoa izan da, 2019koa baino txikiagoa (2,2 gau izan ziren orduan). Gipuzkoako kostaldean balioak ez dira aldatu, 1,69 gau inguru. Gipuzkoako barnealdean 2,56 gauetatik 2,18 gauetara jaitsi da gualdien kopurua eta Donostialdean, pixka bat handitu da, 2,03 gau izan

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Iturria: geuk egina, EUSTATEtik abiatuta (2021).

5.2 Eskualdeen araberako lurralde banaketa: landa ostatuak (1/2)




2021ean landa ostatuetan izandako bidaiarien sarrerek eta gauldiek gora egin dute: guztira 65.129 sarrera izan dira eta 728.025 gauldi.

Landa ostatuaren sektorearen susperraldia % 75etik gorakoa izan da eskualde guztietan. Guztien buru, gainera, Donostialdea dugu, % 84,5eko balioarekin. Haren atzetik datoz Gipuzkoako barnealdea (% 79,1) eta Gipuzkoako kostaldea (% 76,5).


Gipuzkoako kostaldean kontzentratzen dira lurralde historikoko landa ostatuetako bidaiarien sarrera gehienak, % 47,3ko merkatu kuota du eskualdeak. Haren atzetik datoz Gipuzkoako barnealdea (% 26,65) eta Gipuzkoako kostaldea (% 25,98).

2021eko gauldiak eskualdeen arabera



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Landa ostatuetako bidaiarien sarrerek eskualdeen arabera




Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

5.2 Eskualdeen araberako lurralde banaketa: landa ostatuak (2/2)




2021eko bidaiarien sarrerek eskualdeen arabera




Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

2019-2020-2021eko bidaiarien sarreren alderaketa



2019-2020-2021ean eskainitako tokiak eskualdeen arabera



Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Gipuzkoako landa ostatueta bidaiarien sarreren eta gualdien kopuruek azken urteetan gorabehera izan badituzte ere, lurraldearen okupazio egiturak ia ez du aldakuntzarik izan. Donostialdeak % 1,9ko hazkundea izan du, eta kostaldeak, berriz, % 1,7ko jaitsiera.

Gipuzkoako landa ostatueta batez besteko egonaldia 2,96 gauekoa izan da 2021ean. Donostialdean, batez besteko egonaldia 2,95 gauekoa izan da. Gipuzkoako kostaldean, 2,93 gau izan dira eta Gipuzkoako barnealdean, 3 gau. 2019az geroztiko bilakaerak erakusten digu pandemiak egonaldi luzeagoak ekarri dituela, 2020an 3 gau baino gehiagokoak izan baitira. 2021ean, ordea, krisiaren aurreko joeretara itzuli gara berriro eta soilik Gipuzkoako barnealdeak du 3 gaueko batez besteko egonaldia.

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

Iturria: geuk egina, EUSTATEko datuetatik abiatuta (2021).

6.

Metodologia oharra eta datu iturriak





- Txosten honek 2021eko datuak biltzen ditu eta 2019arekin eta 2020arekin alderatzen ditu. Datuok nagusiki Estatistikako Euskal Institututik (EUSTAT) eta Espainiako Estatistika Institututik (INE) hartu ditugu.
 - EUSTATEko datuekin lan egin dugu, zehazki, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestarekin. Inkestak Euskal Autonomia Erkidegoko hotel establezimenduen (hotelak eta ostatuak), landa ostatuen (nekazaritza turismoko establezimenduak eta landetxeak) eta apartamentu turistikoen okupazioari buruzko estatistika informazioa eskaintzen du. Inkestak datu hauek ematen ditu: bidaiarien kopurua, gaudien kopurua, batez besteko egonaldia eta betetze maila, bai tokien arabera eta bai logelen arabera. Landa ostatuen kategorian, EUSTATEk Donostialdean sartzen du Donostiako ostatu establezimenduen informazioa.
 - Enpleguari buruzko datuak Gizarte Segurantzak ematen duen informaziotik atera ditugu, "Turismoarekin lotutako jarduerak - Gizarte Segurantzako afiliazioak". Turismoarekin lotutako jarduerak hartzen ditu barne, nazioarteko gomendioen arabera; Enpleguaren zenbatespena: aztertutako adarrak ez dira soilik turismo sektorerako aritzen; eta soldatapekoak: erregimen orokorreko langileak + itsasoko langileen erregimen berezikoak.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko datuak Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestatik atera ditugu. Inkesta horren helburua da EAEko hotel establezimenduetako bidaiarien sarreren eta gaudien bilakaera neurtzea, Hotel establezimenduen artean bi talde bereizten dira: 1. taldea, 3, 4 eta 5 izarreko establezimenduak hartzen dituen; eta 2. taldea, 2 eta 1 izarreko hotelak eta ostatuak hartzen dituen. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu EUSTAT.
- Donostia ez da Gipuzkoako kostaldean sartzen.
 - Donostialdeak hiriburua hartzen du.
- Txostenaren egileak: Basagaitz Guereño Omil dk., Marina Abad Galzacorta dk., Miren Aurkene Alzua Sorzabal dk., Giuseppe Aliperti dk., Nagore Ageitos Varela dk., eta Leire Elorza Azcue.



Esparrua	Erakundea	Inkesta	Aldia
Hotel establezimenduak	Eustat	Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta	2019-2021
Gipuzkoa: eskaria eta eskaintza	Eustat	Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta	2019-2021
Gipuzkoako eremu geografikoak: eskaria eta eskaintza	Eustat	Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta	2019-2021
Beste helmuga batzuk: eskaria eta eskaintza	INE-Espainiako Estatistika Institutua	Hotelen Okupazioari buruzko Inkesta	2019-2021
Landa ostatuak	Eustat	Hotelen Okupazioari buruzko Inkesta	2019-2021
Gipuzkoa: eskaria eta eskaintza	Eustat	Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta	2019-2021
Gipuzkoako eremu geografikoak: eskaria eta eskaintza	Eustat	Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta	2019-2021
Gipuzkoa: eskaria eta eskaintza	INE-Espainiako Estatistika Institutua	Kanpinetako Okupazioari buruzko Inkesta	2019-2021
Apartamentu turistikoak	Eustat	Apartamentu Turistikoen Okupazioari buruzko Inkesta	2019-2021
Gipuzkoa: eskaria eta eskaintza	Eustat	Apartamentu Turistikoen Okupazioari buruzko Inkesta	2019-2021
Adierazle ekonomikoak	INE-Espainiako Estatistika Institutua		2019-2021
BPGren bilakaera	Eustat	Establezimenduen Inkesta Turismoko Kontu Sateliteak	2019-2021
Turismoko gastua	Eustat	Establezimenduen Inkesta Turismoko Kontu Sateliteak	2019-2021
Enpleguaren bilakaera	Eusko Jaurlaritza	Langileen Gizarte Segurantzako Afiliazioaren Fitxategia	2019-2021
Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa urtean - ADR	Eustat	Gipuzkoako Hotelak	2019-2021
Logela erabilgarri bakoitzeko eguneko batez besteko sarrerak urtean - RevPAR	Eustat	Gipuzkoako Hotelak	2019-2021
Hosteltur (2022) "España es un país de pymes y a ellas deben llegar los fondos europeos"	Hosteltur		2019-2021